



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko martxoaren 20a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Sesmako Udalaren herrilurreko 135.738,22 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziarra dezan, besteak beste, legea betetzen dela etxebizitzan sustapenean eta eraikuntzan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriro dimentsiona dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da defenda dezan Nafarroako osasun zerbitzua-
ren doakotasuna. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan etxebizitza bat lortzeko edo hipotekei aurre egiteko zailtasunak gainditu edo arintzera bideratutako jarduketak. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga arloan har litezkeen neurrien gaineko azterlan bat egin dezan, berritzaileen jardunaren hastapenak errazte aldera. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politiketan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzako, Menpekotasun Legean xedatuta garatze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Ez-materialaren Lehen Plan Zuzendaria presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu biziago eta eragingarriago batez erabil dezan % 1 kulturala, Espainiako Gobernuak aurreikusia, gure erkidegoan kultura ondarrerako bideratutako baliabideak optimizatzea helburu. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen lege proiektu bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumo apaleko lanparen Renove plan bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterkeria delituen biktimentzako prebentzio eta laguntzarako plan integral bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).
- Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko toki administrazioaren administrazio- eta eginkizun-berrantolamendua aztertzeke lan-talde bat eratzekoa. Toki Administrazioiko Batzordeak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak nola bermatuko dien nafarrei alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal izanen dutela. Galdera erretiratzea (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Ekonomia eta Ogasun Batzordeko ordezkari titular bat eta haren ordezkari bat izendatzea Nafarroako Nazioarteko Kontseiluko kide izateko (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Sesmako Udalaren herrilurreko 135.738,22 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Sesmako Udalaren herrilurreko 135.738,22 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Sesmako Udalaren herrilurreko 135.738,22 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena

ZIOEN AZALPENEA

Sesmako Udalak herrilurreko 135.738,22 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta desafektatzea eskatu du, ondoren 43.274,82 metro koadroekin trukatzeko, Sesmako industrialdea handitu ahal izateko, "El Juncalillo" izeneko alderdian.

Sesman industria lurzorurako dagoen eskaerari erantzutea da xedea. Herriko egungo industrialdean erabilgarri dagoen lurzorua ez da aski zenbait enpresak eskatu dutenari erantzuteko.

Sesmako egungo industrialdea handitzeak berarekin ekarriko du gutxienez 84 lanpostu berri sortzea eta lehendik dauden beste 440 lanpostutik gora sendotzea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikuluko 5. idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Sesmako Udalak desafektatzeko asmoa duen eremuak lurzati txikiaren mugak gainditzen dituzenez, foru lege bidez onetsi behar da.

1. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa.

Sesmako Udalaren herrilurreko 135.738,22 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten da. Eremu hori Sesmako katastroko lurzati hauei dagokie: 72.000 metro koadro 5. poligonoko 130. lurzatiak dira; 36.509 metro koadro 6. poligonoko 84. lurzatiak; 27.229,22 metro koadro 5. poligonoko 108. lurzatiak.

Lur horiek foru lege honen 2. artikuluko baldintzetan trukatu arte herri ondasuntzat joko dira.

2. artikulua. Zuzenean trukatzeko baimena.

Sesmako Udalarari baimena ematen zaio aurreko artikuluan aipatutako lurra ondoko lur hauekin trukatzeko: 24.000 metro koadro, 4. poligonoko 625. lurzatiaren zati batekoak; 12.169,82 metro koadro 4. poligonoko 163. lurzatiak, eta 7.105 metro koadro, 4. poligonoko 161. lurzatiaren zati batekoak. Trukearen helburua da El Juncalilloko industrialdea handitzea, dauden enpresak zabaltzeko eta berriak ezartzeko industria lurzorua eskaerari erantzuteko. Baimena ondoko baldintza hauen menpean egonen da:

a) Trukea egiteko itunaren klausula batek xedatu dezala lurra herri ondarera itzuliko direla baldin eta desafektatzera bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak, udalak onetsitako baldintza-agirian jasotakoak, desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzulketa klausula hori jaso dadila kontratuak formalizatzeko Jabetza Erregistroan inskribatzen diren agiri publikoetan, Sesmako Udalak 2008ko martxoaren 31n onetsitako baldintza-agirian agertzen den bezala.

c) Sesmako Udalak herrilurreko 135.738,22 metro koadro desafektatzeko 2008ko martxoaren 31n onetsi zuen baldintza-agirian adierazitako baldintzak bete daitezela. Eremu hori Sesmako katastroko lurzati hauei dagokie: 72.000 metro koadro 5.

poligonoko 130. lurzatikoak dira; 36.509 metro koadro 6. poligonoko 84. lurzatikoak; 27.229,22 metro koadro 5. poligonoko 108. lurzatikoak.

d) Toki entitatearen herri ondarea poliki-poliki murriztu ez dadin, Sesmako Udalak lurak eros ditzala, 51.000 metro koadro hain zuzen, eta herri ondasunen kalifikazio juridikoa eman diezaiela.

e) Erosi beharreko herrilur berri horiek hautatu aurretik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Herrilurren Atalaren onspena beharko da.

Azken xedapenetako lehena. Aplikazio eta garapenerako xedapenak

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituen.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Agur zibilak arautzen dituen Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2009ko otsailaren 4ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko martxoaren 12an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideei buruzko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta dezan, besteak beste, legea betetzen dela etxebizitzaren sustapenean eta eraikuntzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta dezan, besteak beste, legea betetzen dela etxebizitzaren sustapenean eta eraikuntzan". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta dezan, besteak beste, legea betetzen dela etxebizitzaren sustapenean eta eraikuntzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua premiatzen du ziurta dezan legea betetzen dela etxebizitzaren sustapen eta eraikuntzan, bai eta etxebizitza horiek esleitu edo uzten direnean eta horien erabilerari edo xedeari dago-kienez ere, 2009-2010 urteetarako Etxebizitzak Kontrolatzeko eta Ikuskatzeko Planaren helburuek ezarritakoari jarraikiz.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriro dimentsiona dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriro dimentsiona dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriro dimentsiona dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriz zenbatesteko autobide horren adjudikazio, eraikuntza eta ustiaketa kontratuetatik heldu diren betebeharren aplikazio zorrotzetik heldu den zor erreala, betiere zenbatespen horretarako irizpideetan lehentasuna emanez interes eta funts publikoen defentsari.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da defenda dezan Nafarroako osasun zerbitzuaren doakotasuna.*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da defenda dezan Nafarroako osasun zerbitzuaren doakotasuna."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da defenda dezan Nafarroako osasun zerbitzuaren doakotasuna

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun zerbitzuaren doakotasuna defenda dezan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan etxebizitza bat lortzeko edo hipotekei aurre egiteko zailtasunak gainditu edo arintzera bideratutako jarduketak.*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan etxebizitza bat lortzeko edo hipotekei aurre egiteko zailtasunak gainditu edo arintzera bideratutako jarduketak."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan etxebizitza bat lortzeko edo hipotekei aurre egiteko zailtasunak gainditu edo arintzera bideratutako jarduketak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa bereziak abian jar ditzan gizartearen sektore garrantzitsuak pairatzen ari diren zailtasun objektiboak gainditzeko edo arintzeko; hain zuzen, hipotekei aurre egiteko zailtasunak dituztenentzat, etxea galtzeko arriskua baitute, eta etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituztenentzat, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenei uko egin behar izaten baitiete.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga arloan har litezkeen neurrien gaineko azterlan bat egin dezan, berritzaileen jardunaren hastapenak errazte aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga arloan har litezkeen neurrien gaineko azterlan bat egin dezan, berritzaileen jardunaren hastapenak errazte aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga arloan har litezkeen neurrien gaineko azterlan bat egin dezan, berritzaileen jardunaren hastapenak errazte aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen presta dezan ekintzaile berrien eta jarduera berrien lehenbiziko urteetako zerga-zama arinduko duten neurri fiskalei buruzko azterlan bat.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politiketan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politiketan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politiketan

1. Bultza, susta eta berma dezan herritarren benetako parte-hartzea osasun arloko politiketan eta berreskuratu eta abian jarri eta edukiz hornitu ditzan osasunaren arloko foro desberdinak; hain zuzen:

- a. Nafarroako Osasunaren Kontseilua
- b. Ospitale desberdinetako osasunaren kontseiluak.
- c. Oinarrizko eskualdeetako eta osasun barruti-etako osasunaren kontseiluak.

2. Parte-hartzeari buruz indarrean dauden ereduak ebaluatzea horiek hobetze aldera, bai eta eredu berriak aztertu eta sustatzea ere, gaur egungoak osatze edo hobetze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzako, Menpekotasun Legean xedatuta garatze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzako, Menpekotasun Legean xedatuta garatze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzako, Menpekotasun Legean xedatuta garatze aldera

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du parte hartzeko eta aholku emateko foro bat sor dezan toki entitateentzat, Menpekotasun Legean eta Gizarte Zerbitzuen Foru Legean xedatuta garatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gara dezan Menpekotasunari eta Autonomia Pertsonala Sustatzeari buruzko Legearen 12.2 artikuluan xedatutakoa.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Ez-materialaren Lehen Plan Zuzendaria presta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Ez-materialaren Lehen Plan Zuzendaria presta dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Ez-materialaren Lehen Plan Zuzendaria presta dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako ondare ez-materialari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan, Foru Komunitateak arlo horretan dituen ahalmenei balioa eman ahal izateko eta Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen 53. eta 54. artikululak garatzeko. Plan horrek gutxienez ere honakoak jaso beharko ditu:

– Nafarroako ondare ez-materialaren azterketa eta diagnosis.

– Gure inguruarekiko azterketa konparatua.

– Plan zuzendaria:

• Helburuak

• Denbora helburua

- Abian jarri beharreko ekintzak: inbentarioa, babes eta sustapen ekintzak eta abar.
- Aurreikusitako zenbateko ekonomiko orokorra.
- Plana abian jartzeko behar diren langile- eta aurrekontu-baliabideak.

- Hitzarmenak beste erakunde batzuekin: NUP, arlo horretan jada lanean ari diren kultur elkarteak eta abar.

2. Nafarroako Parlamentuak urte eta erdiko epea emanen dio Nafarroako Gobernuari plan hori presta dezan; plana Legebiltzarrean aurkeztu beharko da ezagutu eta onesteko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu biziago eta eragingarriago batez erabil dezan % 1 kulturala, Espainiako Gobernuak aurreikusia, gure erkidegoan kultura ondarrerako bideratutako baliabideak optimizatzea helburu.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu biziago eta eragingarriago batez erabil dezan % 1 kulturala, Espainiako Gobernuak aurreikusia, gure erkidegoan kultura ondarrerako bideratutako baliabideak optimizatzea helburu."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu biziago eta eragingarriago batez erabil dezan % 1 kulturala, Espainiako Gobernuak aurreikusia, gure erkidegoan kultura ondarrerako bideratutako baliabideak optimizatzea helburu

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du balia ditzan Espainiako Gobernuak autonomia erkidegoetako gobernuekin kulturaren arloan kooperatzeko aurreikusita eta irekita dituen bideak, horretara bideratutako baliabideak optimizatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere presentzia kualitatiboa nahiz kuantitatiboa areagotu dezan indarrean dagoen % 1 kulturala programa berariazkoaren hurrengo deialdietan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa horri dagokionez ahaleginak batera ditzan eta Espainiako Gobernuari proiektu garrantzitsuak eskaini dakizkion Espainiako Gobernuari, eskualde-maila gainditzen dutenak eta ikuspuntu artistiko batetik eztabaidaezinak diren parametroetan kokatzen direnak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturaren arloan eragina izanen duten proiektuak aurkez ditzan; hain zuzen, garatzen diren eskualdeetarako garapen ekonomikoa eta soziala bultzatuko dutenak.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen lege proiektu bat aurkez dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen lege proiektu bat aurkez dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen lege proiektu bat aurkez dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera arautuko duen foru lege proiektu bat aurkez dezan, Legebiltzarrean izapidetzeko, baita 2010etik aurrera horien merkaturatzea debekatzeko prozedura ere.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumo apaleko lanparen Renove plan bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumo apaleko lanparen Renove plan bat abian jar dezan."

Legebiltzarrak 2009ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterkeria delituen biktimentzako prebentzio eta laguntzarako plan integral bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterkeria delituen biktimentzako prebentzio eta laguntzarako plan integral bat abian jar dezan."

Legebiltzarrak 2009ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko toki administrazioaren administrazio- eta eginkizun-berrantolamendua aztertzeko lan-talde bat eratzekoa.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Nafarroako Foru Komunitateko toki administrazioaren administrazio- eta eginkizun-berrantolamendua aztertzeko lan-talde bat eratzeko erabakia.” Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazioko Batzordeak 2009ko martxoaren 17an hartu zuen erabaki hori. Hona erabakiaren testua:

1. Nafarroako Foru Komunitateko toki administrazioaren administrazio- eta eginkizun-berrantolamendua aztertzeko lan-talde bat eratzeko Toki Administrazioko Batzordean

2. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lantaldearen osaerari eta funtzionamenduari buruz.

Iruñean, 2009ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak nola bermatuko dien nafarrei alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal izanen dutela.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeak, 2009ko martxoaren 11n egindako bileran, erabaki zuen Ion Erro Armendáriz jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak nola bermatuko dien nafarrei alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal izanen dutela, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeko ordezkari titular bat eta haren ordezkari bat izendatzea Nafarroako Nazioarteko Kontseiluko kide izateko.

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak, 2009ko martxoaren 11n egindako bileran, erabaki hau hartu zuen:

1. Ekonomia eta Ogasun Batzordeko ordezkari diren hurrengo pertsona hauek Nafarroako Nazioarteko Kontseiluko kide izateko izendatzea:

Titularra: Juan José Lizarbe Baztán jauna

Ordezkoa: Maiorga Ramírez Erro jauna

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda
